

STEE-EILAS



AZAROAK 25, EMAKUMEAREKIKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Karibeko eta Hegoamerikako 1. topaketa feministak 1981ean Bogotan (Colombia) burutu ziren eta horietan azaroaren 25a Emakumearekiko Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna izendatu zen. 1999an Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen kontrako bortizkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna" sortu zuen.

Egun hori Mirabal ahizpen hilketa oroitzeko aukeratu zen. Mirabal ahizpak Dominikar Errepublikako 3 ekintzaile politikoak ziren eta 1960ko azaroaren 25ean Rafael Trujillo diktadorearen poliziak bortizki hil zituen.

Emakumeen kontrako biolentziaren egoera oso hedatuta dago. Gizarte, kultura eta klase sozial guztietan agertzen da. Etxean, kalean, lanean, bake eta gudaren garaietan... Errealitate hori gure gizarteak onartzen du, bai bizitza pribatuan bai esparru publikoetan, emakume eta gizonen arteko menpekotasun harreman eredueta oinarrituz.

STEE-EILAS Irakaskuntzako sindikatuan badakigu gizartean ematen den indarkeria mota honen oinarrian dagoen gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak gainditzeko borrokan hezkuntzak betebeharrak garrantzitsuak duela. Betebeharrak honetan denok hartu behar dugun konpromisua baita Administrazioak ere, zalantzarik ez, orain arte oso gutxi egin duena ikastetxeetan prebentzio planak martxan jartzeko.

Errealitate hau aldatzeko eta gainditzeko STEE-EILASen hezkidetzaren alde ari gara lan egiten, arazoa konpontzeko baliabide integral eta baliotsua baita:

-eskola sistema neutroa ez delako ideian oinarritzen delako, gizartearen androzentrismoa eta sexismoa erreproduzitzen da eta horregatik zalantzan jartzen du.

-emakumeek kulturari eta historiari egindako ekarpenak baloratu eta agerian jartzen dituelako.

-gizakia aipatzean berariaz maskulinoa besterik erabiltzen ez duen hizkuntza berraztertzen duelako.

-pertsonek garapen integrala bultzatzen duelako, pobretzen eta mugatzen gaituzten estereotipo eta eginkizunik gabe.

Ikasturte honetan, ere, kartel bat eta jarduera batzuk proposatzen dizkizuegu Irainen inguruan lan egiteko. Iraina hitzen bitarteko bortizkeria baita eta horren bitartez erabiltzen duenak beste pertsonen min ematea eta haserretzea lortu nahi du.

Halaber, 25ean egingo diren manifestaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu:

- Bilbo: 20:00etan Arriagatik
- Donostia: 19:00etan Boulevarretik
- Gasteiz: 19:00etan San Anton Plazatik
- Iruña: 20:00etan Gaztelu plazan.
- Arrasate: 19.00etan Udaletxeko plazan konzentrazioa